BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKADIKO ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN XLII. eta XLIII. EDIZIOAK ANTOLATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOARI BURUZKOA

PLIEGO DE BASES TÉCNICAS PARA LA CONTRATRATACIÓN DEL SERVICIO DE APOYO TÉCNICO PARA LA ORGANIZACIÓN DE LA XLII y XLIII EDICIÓN DE LOS JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari laguntza teknikoa emango dion enpresa bat kontratatzea, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egingo diren alebin eta infantil mailako Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak txandaka antolatzeko.

Parte-hartzaileak 2.600 inguru izango dira, horietatik 790 arabarrak, 900 bizkaitarrak eta 800 gipuzkoarrak. Kopuru hori gutxi gorabeherakoa da; izan ere, ikasturtean hiru lurralde historikoetako bitan, gutxienez, Foru Aldundien eskola-kiroleko programen barruan garatu diren kirol-modalitate guztien deialdia egin da, eta aldatu egin da pixka bat.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Es objeto de este contrato la contratación de una empresa que preste servicios de apoyo técnico a la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco para la organización de los Juegos Deportivos Escolares de Euskadi de categoría alevín e infantil que se celebrarán en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, de manera rotatoria, en varias jornadas a determinar.

El número de participantes será de alrededor de 2.600, de los cuales unos 790 serán alaveses, 900 bizkainos y 800 gipuzkoanos. Esta cifra es orientativa, ya que se convocan todas aquellas modalidades deportivas que hayan sido desarrolladas en el seno de los programas de deporte escolar de las Diputaciones Forales en al menos dos de los tres territorios históricos durante el curso escolar, variando ésta ligeramente.

2.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

Kontratatutako enpresak honako zerbitzu hauek eman beharko ditu Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen edizio horien antolaketarekin lotuta, kirol-modalitate eta -proba hauetan:

• Aerobic
• Xakea (banakakoa eta taldekakoa)
• Pistako atletismoa

•Saskibaloia Parte hartzeko ibilbidea eta errendimendu-ibilbidea.
• Eskubaloia
• BTT
• Txirrindularitza (Gymkana eta lineako proba)
• Krosa
• Futbola (futbol 8 eta futbol 11). Parte hartzeko ibilbidea eta errendimendu-ibilbidea.
• Areto futbola
• Gimnasia erritmikoa
• Judoa

• Karatea:
• Igeriketa
• Pilota (pala, zesta-punta eta eskuz binaka)
• Errugbia
• Tenisa
• Mahai-tenisa (banakakoa eta taldekakoa)
• Boleibola
• Boleibola - Hondartza

Parte-hartzaileek probak aldatu ahal izango dituzte, eta aldaketa horiek gutxienez 2 hilabete

2.- CARACTERÍSTICAS DE LA PRESTACIÓN

La empresa contratada deberá prestar los siguientes servicios relacionados con la organización de las citadas ediciones de los Juegos Deportivos Escolares de Euskadi, en las siguientes modalidades y pruebas deportivas:

- Aerobic
- Ajedrez (individual y equipos)
- Atletismo en pista
- Baloncesto. Itinerario de participación e itinerario de rendimiento
- Balonmano
- BTT
- Ciclismo (Gymkana y prueba en línea)
- Cross (Campo a través)
- Fútbol (fútbol 8 y fútbol 11). Itinerario de participación e itinerario de rendimiento.
- Fútbol sala
- Gimnasia rítmica
- Judo
- Karate (kata y kumite):
- Natación.
- Pelota (pala, cesta punta y mano parejas)
- Rugby
- Tenis
- Tenis de mesa (individual y equipos)
- Voleibol
- Voley - playa

Las pruebas podrán sufrir modificaciones en virtud de las y los participantes, comunicando dichas

lehenago jakinarazi beharko dizkiote enpresa kontratistari. Probak aldatzeaz gain, modalitateren batean urte osoko lehiaketak antolatzea aurreikusten da. Proba berriak eta lehiaketa formatu berriak sartzeak, kontratuaren aldaketa ekar lezake, eta, ondorioz, kontratuko prezioaren aldaketa ere bai.

2.1.- Txapelketen antolaketa orokorra:

Enpresak prestazio hauek emango ditu:

- Parte-hartzaileen izen-emateak jasotzea
- Horien tratamendu informatikoa
- Probei buruzko informazioa sartzea Eusko Jaurlaritzaren Interneteko edukietarako biltegian
- Idazkiak egitea (gutunak, oharrak, jakinarazpenak...)
- Jendeari eta parte-hartzaileei informazioa ematea
- Egoerari buruzko txostenak egitea
- Beharren ebaluazioa
- Bileretara joatea (udalak, federazioak, batzordeak...)
- Inaugurazio-ekitaldia diseinatzea, koordinatzea eta gauzatzea
- Sor daitekeen eta antolakunde orokorrari dagokiola uste den beste edozein.

2.2.- Txapelketen aurretiko plangintza:

Eskolako jokoak amaitzean, enpresak hurrengo eskola-jokoen plangintza egingo du denboraldia hasten denetik urtea amaitu arte, kontratuak indarrean jarraitzen duen bitartean.

2.3.- Antolaketa teknikoa:

Enpresak prestazio hauek emango ditu:

- Federazioekiko harremanak, programa teknikoa eta lehiaketa-araudiak ezartzeko (zerbitzu horien gastuak ordaindu behar badira, enpresak ordainduko ditu).
- Ordutegiak eta instalazioak koordinatzea
- Emaitzen, sailkapenen eta abarren tratamendu informatikoa.
- Bilera teknikoetara joatea
- Informazio teknikoaren diseinua
- Emaitza ofizialen orria egitea eta parte-hartzaileen artean banatzea
- Ekitaldiaren segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako alderdiez arduratzea
- Sor daitekeen eta antolaketa teknikoari dagokiola uste den beste edozein.

2.4.- Parte-hartzaileen desplazamendua:

variaciones a la empresa contratista con una antelación mínima de 2 meses. También podrían incorporarse competiciones que duren todo el curso escolar. La introducción de nuevas pruebas y nuevos formatos de competición puede suponer una modificación del contrato y, en consecuencia, una modificación del precio del contrato.

2.1.- Organización general de los campeonatos:

La empresa realizará de las siguientes prestaciones:

- Recepción de las inscripciones de las y los participantes
- Tratamiento informático de las mismas
- Introducción de la información relativa a las pruebas en el repositorio del Gobierno Vasco para contenidos de internet
- Realización de escritos (cartas, notas, comunicados...)
- Información al público y participantes
- Elaboración de informes de situación
- Evaluación de necesidades
- Asistencia a reuniones (ayuntamientos, federaciones, comités...)
- Diseño, coordinación y ejecución del acto inaugural
- Cualesquiera otra que puede surgir y se considere que compete a la organización general.

2.2.- Planificación previa de los campeonatos:

Al concluir los juegos escolares, la empresa llevará a cabo la planificación de los próximos juegos escolares durante el período que abarca desde el inicio de la temporada hasta el final del año mientras siga en vigor el contrato.

2.3.- Organización técnica:

La empresa realizará las siguientes prestaciones:

- Relaciones con las federaciones para establecer el programa técnico y los reglamentos de competición (en caso de tener que abonar los gastos de estos servicios, los mismos correrán a cargo de la empresa)
- Coordinación de los horarios y de las instalaciones
- Tratamiento informático de resultados, clasificaciones, etc.
- Asistencia a reuniones técnicas
- Diseño de la información técnica
- Elaboración de la hoja de resultados oficiales y su difusión entre participantes
- Encargarse de los aspectos relacionados con la seguridad y salud del evento
- Cualquier otra que pueda surgir y se considere que compete a la organización técnica.

2.4.- Desplazamiento de las y los participantes:

Enpresak Donostiatik, Gasteiztik eta Bilbotik kirol-probak egiteko lekuetarako garraioa jarriko du parte-hartzaileen eskura. Egokitzat jotzen bada, beste irteera edo geldialdi batzuk ezarri ahal izango dira.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak zehaztuko ditu jatorria, helmuga eta ordutegiak.

La empresa pondrá a disposición de las y los participantes transporte desde Donostia-San Sebastián, Vitoria-Gasteiz y Bilbao a los lugares de celebración de las distintas pruebas deportivas, pudiendo establecer otros puntos de salida, destino o parada si así se considera oportuno.
El lugar de origen y destino, así como los distintos horarios serán determinados por la Dirección de Actividad Física y Deporte.

2.5.- Zuzendaritza teknikoa:

Enpresa kontratistak lankidetzan jardungo du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin, honako prestazio hauek emateko:
- Kirol-proben arbitrajea.

- Arbitraje-erabakien aurka jartzen diren errekurtsoak ezagutzea eta ebaztea. Errekurtso horiek ahalik eta lasterren ebatzi beharko dira, ondorengo probetan parte hartu ahal izateko.

- Sor daitekeen eta zuzendaritza teknikoari dagokiola uste den beste edozein.

2.5.- Dirección técnica:

La empresa contratista colaborará con la Dirección de Actividad Física y Deporte en la realización de las siguientes prestaciones:

- Arbitraje de las distintas pruebas deportivas
- Conocimiento y resolución de los recursos que se interpongan contra las decisiones arbitrales. Tales recursos deberán resolverse en el plazo más breve posible a fin de posibilitar la posible participación en posteriores pruebas.
- Cualesquiera otras que puedan surgir y se considere que compete a la dirección técnica.

2.6.- Sariak:

Era berean, kontratistak garaikur edo domina bana eman beharko dio sailkapeneko lehen hiru talde eta/edo kirolari bakoitzari (lehiaketa-araudiak ezarritakoaren arabera), edizioa eta kirol-modalitatea identifikatuta.

2.6.- Trofeos:

Asimismo la contratista deberá otorgar un trofeo o medalla conmemorativa a cada uno de los tres primeros equipos y/o deportistas de la clasificación (según establezca la normativa de competición), identificando la edición así como la modalidad deportiva.

2.7.- Hornidura:

Era berean, parte-hartzaileei poltsa bat eskaini beharko zaie gutxienez, bi ogitartekorekin: bata beroa eta bestea hotza, edariak eta fruta-pieza bat.

Bi ogitartekoetako batek ez du haragirik edo hestebeterik izan behar osaeran.

Era berean, elikadura-alergia edo -asalduraren bat duten parte-hartzaileengandik aurrez jasotako eskaerei erantzungo zaie.

2.7.- Avituallamiento:

Igualmente se deberá ofrecer a las y los participantes mínimamente una bolsa con dos bocadillos, uno caliente y el otro frío, bebidas y una pieza de fruta.

Uno de los dos bocadillos no deberá tener carne o embutido en su composición.

Asimismo, se atenderán las solicitudes previamente recibidas de las y los participantes que sufran algún tipo de alergia o alteración alimentaria.

2.8.- Megafonia eta beste azpiegitura bat:

Halaber, enpresa kontratistaren ardura izango da, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin bat etorriz, argiztapeneko materiala, soinua eta girotze musikala muntatzea eta desmuntatzea, eta agertokian eta alboko itxituretan siluetak eta testuak diseinatzea eta errotulatzea.
Halaber, lore-apainketako zerbitzu bat egin beharko da, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz.

2.8.- Megafonía y otra infraestructura:

Será también responsabilidad de la empresa contratista, de acuerdo con la Dirección de Actividad Física y Deporte, el montaje y desmontaje del material de iluminación, el sonido y ambientación musical, y el diseño y rotulación de siluetas y textos en escenario y cierres laterales.

Asimismo se deberá realizar un servicio de ornamentación floral, siguiendo a estos efectos las indicaciones de la Dirección de Actividad Física y Deporte.

Era berean, anbulantzia bat duen zerbitzu mediko bat eduki beharko da. Zerbitzu horrek hainbat kirol-proba hartu ahal izango ditu bere gain, horietako bakoitzera joaten den pertsona-kopuruaren arabera eta proba egingo den lekuaren artean dagoen distantziaren arabera. Urtean 15 zerbitzu inguru beharko direla aurreikusten da.

De la misma manera se deberá contar con un servicio médico con disponibilidad de una ambulancia para cada prueba deportiva. Este servicio podrá asumir varias pruebas deportivas, según el número de personas que acudan a cada una de ellas y según la distancia que haya entre los lugares de realización. Se prevé la necesidad de unos 15 servicios anuales.

Enpresak eskola-jokoen argazki-erreportaje bat egingo du, eta argazki guztien kopia bat entregatu beharko du, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak haien jabe gisa zehaztutako formatuan, eta horiek dibulgazio-helburuetarako erabili ahal izango ditu. Era berean, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eskola-jokoak zabaltzeko izan ditzakeen tresnak eta sare sozialak kudeatuko ditu.

La empresa realizará un reportaje fotográfico de los juegos escolares, debiendo entregar una copia de todas las fotografías en el formato que determine la Dirección de Actividad Física y Deporte como propietaria de éstas, pudiendo hacer uso de las mismas para fines divulgativos. También gestionará las herramientas y redes sociales que pueda disponer la Dirección de Actividad Física y Deporte para la difusión de los juegos escolares.

Halaber, 50 lagunentzako lunch bat izango du, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz.

Asimismo dispondrá de un lunch para 50 personas, siguiendo a estos efectos las indicaciones de Dirección de Actividad Física y Deporte.

Azkenik, ekitaldia dinamizatzeko pertsona bat kontratatzeaz arduratuko da, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak emandako jarraibideei jarraituz.

Por último, se encargará de la contratación de una persona para la dinamización del acto, siguiendo las instrucciones emanadas de la Dirección de Actividad Física y Deporte.

Eskola-jokoen edizio bakoitza amaitu ondoren, enpresa kontratistak txosten bat egingo du, eta, bertan, gorabehera guztiak jasoko dira, bai eta etorkizuneko edizioetarako hobekuntza-proposamen bat ere.

Una vez concluida cada edición de los juegos escolares la empresa contratista realizará un informe en el que se recogerán la totalidad de las incidencias, así como una propuesta de mejoras para futuras ediciones.

3.- KOORDINAZIO TEKNIKOA.

3.- COORDINACIÓN TÉCNICA.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak egingo du koordinazio teknikoa, eta enpresa kontratistak egiten dituen proposamen guztiak gainbegiratzeaz eta baliozkotzeaz arduratuko da. Gainera, zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezko informazio eta baliabide guztiak emango ditu. Era berean, lan-ildoak eta beharrezko jarduerak proposatu ahal izango ditu kontratua gauzatzeko edozein unetan, nahiz eta pleguan berariaz adierazi ez, eta behar adina bilera egin ahal izango ditu, alderdiek eskatuta. Gainera, zerbitzua behar bezala emateko behar diren informazio eta baliabide guztiak emango ditu.

La coordinación técnica se llevará a cabo por la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco que será la encargada de supervisar y validar cuantas propuestas plantee la empresa contratista. Además, facilitará toda la información y los medios necesarios para la correcta ejecución del servicio. Así mismo, podrá proponer líneas de trabajo y actuaciones necesarias en cualquier momento de la ejecución del contrato, aun cuando no hayan sido expresamente señaladas en el pliego y mantener cuantas reuniones sean precisas a instancias de las partes. Además, facilitará cuanta información y medios sean necesarios para la correcta ejecución del servicio.

Enpresak beharrezko informazioa duten dokumentuak eskatu ahal izango dizkio Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari, betiere konfidentzialtasuna errespetatuz datu pertsonalei eta dokumentu publikoen sekretuari dagokienez.

La empresa podrá solicitar a la Dirección de Actividad Física y Deporte los documentos que contengan la información necesaria, respetando en todo caso la confidencialidad en lo que se refiera a datos personales y el secreto en los documentos públicos.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

GORKA ITURRIAGA MADARIAGA - 30665932D

Firmado digitalmente por GORKA ITURRIAGA MADARIAGA - 30665932D
Fecha: 2024.11.25 10:31:11 +01'00'